

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



RURAL KUTXA

Urnietako eta Euskal Herriko herri-kirolarien erakustaldia



Rural Kutxa Binakako Aizkora Txapelketako finalurreko ikusgarriak jokatu ziren Urnietako San Juan plazan, igande eguerdian / 12-13

AIURRI

Rock Jaialdia, prest

18. Andoingo Rock Jaialdiko kartela aurkeztu dute. Hitzordua ekainaren 13an da / 11

XX. Urnieta Erromerian jaialdia, egun osoko ospakizuna Urnietan, larunbat honetan / 8-9

Urki Dantza Taldearen jaialdia, Bastero Kulturgunean, igande eguerdian / 16

LOURDES IRIONDO UDAL MUSIKA ESKOLA
2026-2027 IKASTURTEA
Izena eman maiatzaren 29ra arte

Lourdes Iriondo
udal musika eskola
lourdesiriondo@urnieta.eus
San Joan plaza, z/g
20130 Urnieta
Tf: 943 008 033

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

OPO
RRAK



Buru osasuna ardatz duen hitzaldia, hurrengo astean

“Ondo lo egin, hobeto bizitzeko: atsedanak osasunean duen eragina” izeneko hitzaldia, maiatzaren 27an

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Osasun Etxetik iritsi da gonbita: Tolosako Kultur Etxean, dementziaren inguruko tailerren zikloaren baitan, hitzaldia emango du Miren Altuna Azkargorta doktoreak. Datorren maiatzaren 27an, asteazkena, izango da arratsaldeko 18:30ean hasita. “Ondo lo egin, hobeto bizitzeko: atsedanak osasunean duen eragina” izenburupean, Altuna Azkargortak loaren garrantziaz eta atsedan egokiak osasunean duen eraginaz hitz egingo du. Saioan, loaren kalitateak memoria, ongizate emozionala eta garunaren osasuna nola baldintzatzen dituen azalduko da, bereziki demenziaren prebentzioari eta zaintzari lotuta.



Miren Altuna Azkargorta. BIOMED

Miren Altuna Azkargorta neurologoak garuneko gaixotasun degeneratiboak ikertzen ditu, bereziki, alzheimerra.

Ate-irekiak, Andoaingo euskaltegian

Andoaingo AEK euskaltegian dagoeneko zabalik dago aurrematrikulaziorako epea. Informazio gehiago: 943 69 17 04 / 688 74 66 43 (whatsapp)/ andoain@ae.k.eus. Ate-irekiera jardunaldia maiatzaren 27an izango da, 10:00etan eta 17:30tan.



Euskaltegian bezala, Mintzalagunak egitasmoan euskaraz trebatzeko aukera dago.

Ehun urte bete ditu Mateosak

Petra Mateos andoaindarrak 100 urte bete zituen eta igandean senitartekoekin egin zuen ospakizuna, Juan Bautista Bataiatzailea zahar egoitzan. Andoni Alvarez alkatearen eta Haizea Barandiaran zinegotziaren bisitaldia jaso zuen. Argazkian, senitartekoak, udal ordezkariak eta zahar egoitzako hainbat langilerekin batera ageri da.



ANDOAINGO UDALA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbira Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urmietak).
Diseinua: Goleña / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALJATUAK: INESTOR, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA | Urmietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia | ELUSKO JAIURLARITZA GOBIERNO VASCO

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

"Justizia linguistikoa", Udaltopen aztergai

Udaltop 2026k euskalgintzako profesionalak bilduko ditu Lasarte-Orian, justizia linguistikoz hausnartzeko. Topaketa ostegun eta ostiral honetan egingo da Manuel Lekuona Kultur Etxean

Erredakzioa ANDOAIN

Udaltop-en XVIII. edizioak "justizia linguistikoa" izango du ardatz, "Justizia linguistikoa: diskurtsoak, praktikak eta oinarriak berdintasuna helburu" lelopean. Bi jardunalditan, euskara teknikari, erakundeetako arduradun eta hainbat arlotako adituek hizkuntza eskubideekin, hizkuntza gutxituen biziberritzearekin eta benetako hizkuntza berdintasunerantz aurrera egiteko politika publikoekin zerikusia duten gaiak jorratuko dituzte.

Topaketaren inaugurazio ekitaldia ostegun honetan egingo da, goizean, eta hitzaldien, go-goeta mahaien eta parte hartzeko guneen egitarau zabalari hasiera emango dio. Hizlari nabarmenen artean, hauek daude: Vicenta Tasa Fuster, Valentiako Unibertsitateko Drets Linguistics katedrako zuzendaria; Xabier Arzo Santesteban, UNEDeko Administrazio Zuzenbideko katedraduna; edo Iñigo Urrutia Libarona, EHUko Justizia Soziolinguistikoko Katedrako zuzendaria.

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara zinegotzi Estitxu Alkorta Barraganek nabarmendu duenez, "Udaltop erreferentzia-gune gisa finkatu da esperientziak parte-



Topaketa, artxiboko irudian. TXINTXARRI

katzeko, eztabaida sortzeko eta udal-eremutik euskararen normalizazioan aurrera egiten jarraitzeko". Zinegotziak gaineratu duenez, "justizia linguistikoa erronka kolektiboa da, erakundeak eta herritarrak interpelatzen dituena, eta horrelako jardunaldiek tresna eta estrategia partekatuak eraikitzen jarraitzen laguntzen dute".

Edizio honetako programazioak, gainera, formatu parte-hartzaile berriak izango ditu, hala nola "Gure plaza" gunea, ostiraleko jardunaldirako aurreikusia, non Euskal Herriko

errealitate soziolinguistikoko ezberdinen inguruko testigantzak eta eztabaida dinamikak uztartuko diren.

Hizkuntza legeriarekin, hizkuntza eskubideekin, euskarari lotutako oroimen historikorekin eta hainbat lurraldetako hizkuntza biziberritze esperientziekin lotutako gaiak aztertuko ditu saioak.

Udaltop Lasarte-Oriako Udalak bultzatzen du, Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiekin, Euskarabidearekin eta euskararen sustapenari lotutako beste erakunde batzuekin batera.

"Nago" urnietarra, Egunean Behineko lehen sariduna

Joko ezagunaren 21. denboraldian, Tokikom Liga jokatzeko ari da Aiurri (Beterri-Buruntza) taldea



"Nago", saria eskuetan duela. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Egunean Behin jokoaren 21. denboraldia maiatzaren 11ren hasi eta uztailaren 12aren arte luzatuko da, 9 asteko lehian. Ohiko asteko babesletzak eta sariak izango dira, eta denboraldikoak ere bai, kasu honetan Tokikom toki komunikabideen bateraguneak babestuta. Tokikom eta bere hedabideen partaidetza beste ekimen batean ere gauzatu da: 10 hedabide eta beren eskualdeetako partaideek elkarren arteko lehiaketa propioan arituko dira. Tokikom Liga izango da hori. Horietako talde bat Aiurri (Beterri-Buruntza)

da eta, bertako kideen artean, astero-astero, eskualdean ekoiztutako sagardoa zozkatuko da. Denboraldiko lehen zozketan sariduna "Nago" urnietarra izan da. Hark eraman du etxera Mizpiradi sagardotegiko kaxa. Zorionak eta zorte on gainerako partaideei!

TOKIKOM Ligak uztailaren 12ra arte iraungo du eta, bitarte horretan, edozein momentutan eman daiteke izena Aiurri (Beterri-Buruntza) taldean. Horretarako, Egunean Behin aplikazioaren erabilzaile ezarpenen atalera sartu eta bertan aukeratu behar da eskualdea.

Egunean Behin jokoaren 21. denboraldia hemen da!

AIURRI

egunean
behin

TOKIKOM LIGA

Animatu eta batu zaituz Tokikom Ligako AIURRI taldera
(maiatzaren 11tik aurrera, aplikazioko zure abatarrean klik egin)

PROTAGONISTAK

Imazek eta Alonsok jantzi dute txapelak

Esther Imazek eta Cipri Alonsok irabazi zuten Ontza elkartearen 50. Joxe Mari Erkizia Mus Txapelketa, joan den ostiralean. Pozik gainezka agertu da bikotea, muszaleen artean sona handia daukan txapelketako txapela jantzi izanagatik



Cipri Alonso eta Esther Imaz, Ontza elkartearen irabazitako txapela banarekin. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo Ontzaren txapelketaren pareko ibilbide historikoa eginga daukaten mus txapelketa gutxi izango dira Euskal Herrian, eta errealtate horrek, garaipenari balioa eransten diola aitortu du bikoteak. “Oso serioa da txapelketa, antolatzaileek kontu handiz zaintzen dituzte xehetasun guztiak, jokalariek ondo zaintzen dituzte, eta oso afari ederra prestatzen dute bukaera emateko. Gauzak horrela, mus jokoaren zale amorratuak biltzen gara, eta errespetuzko lagun-giroa izaten da nagusi gure artean. Gustua ematen du txapelketa baldintza horietan jokatzeko, eta zer esanik ez irabazteak!”, esan du Imazek.

Egiazki, ez da nolana hikoia lehiaketa, bi hilabetez luzatzen baita. Aurten, 24 bikote aritu dira astero, hiru taldeetan banatuta, guztiek elkarren arteko ligaxka jokatuz, hoge minutu-

tik ordu betera luza litezkeen partiden eskutik.

Imazek eta Alonsok Javier Baltasar eta Iñaki Eguesek osatutako bikotea izan zuten aurkari, finalean. Gogorra izan zen lehia inondik inora ostiral gauekoa, bikote horrek lehendik ere bai baitaki zer den irabaztea Jose Mari Erkizia Mus Txapelketa.

Premiazkoak diren dohainak, musean aritzeko

Imazek hamargarren urtea du Ontzako txapelketan, Alonsok gehiago daramatza. Elkar hartuta, bikote osatuz, hirugarren aldia dute. “Iraganean, aritu izan gara elkarrekin, Anayak tabernak ostiraletan antolatzen zituen txapelketa gogoangarri haietan; behin irabazi ere egin genuen!”, gogoratu du Alonsok. Bi-biren kontrako mahai-jokoa da musa. “Bikotea osatzen dute jokalariek, eta erabatekoa behar du izan bata bestearekin dau-

kan konfiantza, konplizitatea, kideasuna, konpenetrazioa edo deitu nahi duzuna. Horienik gabe, jai duzu, biek irabazi edo galtzen baitute; hor ez du balio individualismoak”, esan du Alonsok.

Musean egoki jokatzeko, behar diren trebezia edo dohainengatik galdetuz gero, hainbat ezaugarri zerrendatu ditu Imazek. “Musak asko dauka pazientziatik, arriskuak hartzetik, estrategiatik, iruzur plantak egitetik... Zoria ere kontuan hartu beharrekoa izaten da, noski, kartak banatzerakoan; bi errege egokituz gero, esate baterako, jokoa errazten egiten zaizu”. Estrategiaren baitan, aurkaria ondo aztertzen jakitea ez dela ahaztu behar, gogorazti du Alonsok. “Beti zaizkizu jakingarri zeintzuk diren bikote aurkariaren ezaugarriak; odol-hotzekoa ote den, partida azkar moztearen aldekoa ote den...”.

Muserako zaletasuna

Atzera begira jarrita, penatuta daude biak ere iraganean Andoaingo elkarte gastronomikoen artean jokatzeko zen txapelketa desagertu izanagatik. Hala dio Alonsok: “ezagutu ditugu elkarrekin arteko lehiak aspalditxo, baina esango nuke pandemiaren etorrerarekin geratu zirela bertan behera. Giro polita izaten zen, musa aitzakiapean, sendotu egiten ziren elkarrekin guztien arteko harremanak. Egia esan, Ontza elkartearen izena gustura asko defendatuko genuke oraintxe!”.

Mus txapelketen ohitura Andoaingo nahikoa jaitsi dela uste du Alonsok. “Izan dira urte batzuk elkarrekin eta taberna ugari animatzen zirenak txapelketak antolatuz, ostiral gauean eta mus azkarreko lehia besterik ez bazen ere. Apenas dagoen halakorik gaur egun, ordea. Aitzitik, ezagutzen ditudan inguruko herrietan indarrean dabilta, eta gainera, ikusten da belaunaldi berriek ere lekuko hartu dietela, biziki erakartzen dietela jokoak eta lehiak”.

Emakumeen presentzia urria

Cipri Alonsok zehaztu duenez, mutilak segitzen dute nagusiki, han hemen antolatzen diren txapelketetako jokalariek izaten. “Pena pixka bat ematen du, hamar parte-hartzailetik soilik bat edo bi izatea emakumeak. Ez dakit estereotipoa den ala ez, baina badirudi denborapasako aldarteetan, oro har, emakumeek nahiago izaten dutela kafe bat hartuz tertulian jardutea, musean txapelketan murgildu baino”.

“Musa gizonen kontua dela” uste okerra oraindik gizartearen nahiko zabaldua dagoela onartzen dute, hein batean. Bada, gezurra badirudi ere, oraindik ere ozen esan beharra dago musean jokatzeko behar diren dohain pertsonalek, intelektualek... ez dutela zerikusirik sexuekin. Baieztapen hori nahiko begi bistakoa dela aitortzen du bikoteak, baina “ez dagoela soberan gogoraraztea”, gaineratu du.

Besteak beste, arrazoi sozialak aipatu dituzte partaidetza kopuruen desoreka hori oraindik

ere zergatik den halakoxea, ulertzeko. “Patriarkatua sustaia dituen gizartearen, elkarrekin gastronomikoak eta tabernak izan dira musaren tenpluak orain gutxi arte; musa, eta batik batik lehiaketa, espazio publiko horiekin identifikatu izan dira, eta jakina, emakumeek ateak itxita eduki dituzte orain gutxi arte horietan”.

Ontzaren Jose Mari Erkizia memorialeko txapelketari dagokionez, hamar bat urte dira emakumeak hasi zirenetik lehiatzen, eta normalizatu samar dagoela haien presentzia, onartu dute biek, nahiz eta nahiko desorekatua izaten segi proportzionalki.

Urrutira gabe, hogeitau jokalarietatik, bost emakume izan dira aurtengoa edizioan; Miren Erkizia, Uxue Ugartemendia, Eva Beraza, Ainhoa Urkola, eta, Esther Imaz bera, hain zuzen.

Garaipenak, oihartzun zabala

Aurreko urtetan baino oihartzun zabalgia eduki du Andoaingo jendartearen, egunotan, Ontzaren mus txapelketako finalaren albisteak. Ukaezina da hori. Ontzaren txapelketaren mende erdiko historian, lehenengo aldian da emakume bat finalera iritsi eta irabazten duela, eta hori datu deigarria eta azpimarragarria bada, berez.

Alde horretatik, Esther Imazek aitortzen du ostiral gauaz geroztik makina bat zorionmezu jaso dituela adiskide eta ezagunen aldetik, eta egia izan litekeela emakume izateagatik handiagoa izatea poztasun hori. “Pozgarria da berdintasunaren normalizazioa bidean, eta niri egundoko poza eragiten dit garaipenak, Cipri nire bikoteari baino gehiago beharbada, muslari amorratua ez ezik lehen emakume irabazlea naizelako”. Nolanahi ere, zehaztapen bat egin nahi izan du Imazek. “Esan dudana guztia onartuta ere, kontuz, ez nuke zertan planteatu nahi sexuen arteko gerra baten modura! Emakumeek ere gogoko ditugu karta-jokoak, eta erarik naturalenean hartu beharke genuke parte txapelketetan gogoia edukiz gero, eta halaber, erarik naturalenean ikusi beharke litzateke gure presentzia txapelketetan. Kitto!”.

PROTAGONISTAK

"Kataluniako ardoak dastatuko ditugu"

MIRARI IGERATEGI ETA NEKANE ORKAIZAGIRRE URNIETAKO MATXO TABERNA Bezeroekin gertuko harremana du Matxo tabernak eta hori du, ziurrenik, indarguneetakoa. Ardo-dastaketak antolatzeari ekin diote, arrakasta handiz

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Zer dela eta jarri zenuten martxan ardo dastaketa?

Mirari Igerategi. Alabaren ideia izan zen, eta niri ere oso polita iruditu zitzaidan ardo motak ezagutzea eta kultura horretatik ikastea.

Nekane Orkaizagirre. Ardoa oso gogoko dut, baina ez daukat ezagutza handirik. Era berean, ardoaren kontsumoa jaisten ari da, gazteen artean garagardoaren kontsumoa gailentzen da, eta tabernan espazioa dugula ikusita, egoera horri buelta emateko aukera ikusi nuen. Dastaketaren bidez, ardoaren kultura ezagutaraztera emateaz gain, gazteak erakartzeko modu ona izango zela pentsatu nuen.

Espero zenuten hainbeste lagunek interesa agertzea?

N.O. Nik ez, egia esan. Hasieratik jendea animatzen hasi zen, jende heldu nahiz gaztea, eta taberna bete egin zen.



Mirari Igerategi eta Nekane Orkaizagirre. AIURRI



Lehen ardo dastaketan hogeita lagun elkartu ziren. MATXO

M.I. Bai, hain zuzen ere, hori bilatzen dugu; gazteak eta adineko jendea batzea. Giro hori sortu nahi dugu.

N.O. arte hartzeari dagokionez, erantzuna oso ona izan zen, eta batzuk parte hartu ezinik gelditu ziren. Bestalde, egia da, lekua mugatua dela, 20 lagun soilik kabitzen dira.

Ardo dastaketari dagokionez, jakin-min handia dagoea iruditzen zaizu?

M.I. Ez nago ziur, oraindik hasi berriak gara alor horretan, baina, baietz esango nuke.

N.O. Uste dut tabernara normalean datorren bezeroak ez duela ardoaren inguruan galdetuko, aldiz, ardo dastaketa bat antolatzen baldin bada, eta ardo bereziak dastatzeko aukera badu, errazagoa izango da parte hartzeko interesa adieraztea. Horrelako dastaketek ardoaren inguruko ezagutza eskuratzeko aukera ematen dute; graduazioa, kolorea, zaporea... Zentzu horretan, badago jakin-mina.

Hurrena, Euskal Herriko ardoetatik Kataluniako ardoetara pasako zarete. Zerbait aurreraterik baduzue?

M.I. Bai, hurrengo hilean Kataluniako ardoak dastatuko ditugu. Ardo mota desberdinak eskaintzea gustatzen zaigu, aldatzen joateko. Beraz, bai, hurrengo hilean Mediterraneo aldeko ardo batzuk dastatzeko aukera izango dute. Andrea Melo da ardo dastaketetan ardoak aurkezten dituen, eta berak azalduko dizkie parte hartzaileei ardo bakoitzaren berezitasunak.

N.O. Ardo dastaketa tematikoak egitea proposatu genion, funtsean, ardo mota desberdinak ezagutzeko. Berari interesgarria iruditu zitzaion, eta Euskal Herriko ardoekin hasi zen, eta horren ostean Kataluniakoekin. Ingurukoek baiezkoa eman zигuten, eta horrekin aurrera egitea erabaki dugu. Datorren ekainaren 4an izango da.

Uda eta gero jarraitzeko gogoz zaudete?

M.I. Jendeak erantzuten baldin badu, bai. Gu gustura gaude egitasmo berri honekin.

N.O. Lana da, baina, aldi berean, asetzen gaituen zerbait da. Giro polita sortzen da, izan ere, ez da ardo-dastaketa hutsa, lehe-

Hitzordu berria

Deialdia luzatu dute:

"Ekainean Kataluniako ardoen txanda izango da. Mediterraneoko zaporeak ekarriko dizkizuegu, zuzenean, Matxonera. Ekainaren 4an izango da, 20:00tan hasita. Izen emateko azken eguna maiatzaren 29a izango da. Gorde lekua Matxon bertan edo 697 807 182 telefono zenbakira mezua bidaliz. Adi! Leku mugatuak ditugu eta lehenengo saioan denak agortu ziren. Mugi, eta gorde zure kopa lehenbailehen!"

nago gazteak hurbiltzen dira, eta amaitzean ere, jendea bertan gelditzen da. Finean, oso giro ona sortzen da. Ez dira dastaketara bakarrik etortzen, eta amaitzean ez dira berehala modu hotzean joaten.

Azpitarratu nahi dut, bestalde, ardo dastaketaz gain, Matxo tabernan, hilabetero, ardo desberdinak eskaintzen hasiko garela.

Bezeroarekin bestelako harremanak sustatzeko aukera ematen al dute horrelako ekintzek?

N.O. Lehen ere, Matxo betidanik oso gertuko taberna izan da.

M.I. Bai, oso gertukoak gara. Hona etortzen direnak ezagunak izaten dira, taberna herrian aski ezaguna baita. Harremanetzeko moduari dagokionez, ez dut aldaketarik sumatu.

N.O. Aldaketa handiena sortu den giroan antzeman dugu, batez ere, belaunaldiartekotasunari dagokionez. Tabernetan normalean, ez dira adin desberdinetako taldeak nahasten, bakoitza bere aldetik doa. Ardo dastaketan, berriz, giroa desberdina da, eta adin guztietako jendea batzen da.

Bestalde, azpitarratu nahi dugu, ardo-dastaketa euskaraz izan zela, eta euskaraz egin nahi ditugula. Parte hartzaile batek gazteleraz egin nahiko balu, moldatuko litzateke, baina gure apustua euskaraz egitea da.



Xoo! ipuin-musikatua emanaldira haur eta familia ugari hurbildu zen. AIURRI



Plaza-dantzekin amaitu zen Eusfesta. AIURRI



DJ Mikeltxik saioa egin zuen eguerdian. AIURRI

Eusfera egitasmoari hauspoa, Andoaindik

Hamaika egunez, hitzordu ugari egin dira Andoainen: jolasak, ipuin kontaketa saioa, ginkana mitologikoa, zirku-tailerra eta Eusfesta. Aurreko igandean amaitu zen zikloa eta, inguruko herrialdeekin alderatuta, Andoaingoa erreferente izan da

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Aiurri astekaria Taupa mugimenduarekin harremanetan jarri da, balorazio orokorra eskatu asmoz. Oraindik goiz dela diote, izan ere, Eusfera maiatzaren 17 arte izango zela zehaztu zuten arren, udalerrri askotan hilaren 22ra arte luzatzea erabaki dute. Beraz, ekimena martxan dago oraindik. Gainera, egitasmoa luzatzeak, Eusferak izan duen harrera ona islatzen duela uste Taupako kideek. Hainbat udalerritan interesa piztu duela azpimarratu dute eta horietako bat, zantzarik gabe, Andoaingoa da. Egitarau propioa landu du, kanpoko eta bertako eskaintzak uztartuz. Guraso talde baten gidaritzapean, Larramendi Bazkunak antolatu du Eusfera eta Andoaingo Udala izan da bide-lagun.

Taupakoen ustez, Eusferak gizartearen zegoen kezka partekatu bati, erantzun partekatu

bat ematen saiatu da, eta balioan jarri nahi dute ekimenaren antolaketan inplikatu diren herritar eta eragile guztiak. Andoainera, nabarmen, guraso talde batek erakutsi duen prestutasuna txalogarria izan da.

Tauparen helburuetakoa, hain zuzen, 0-12 urte bitarteko gurasoen parte hartzea sustatzea izan da. Hori gauzatzeko, protokoloak antolatu dituzte Misioak nahiz Euspazioak errealitate linguistiko bakoitzera moldatzeko. Helburua, euskaldun eta ez euskaldunen arteko sare berriak sustatzea izan da, denen artean euskararentzat arnasmune izango den espazioa eraikitzeko.

TXALOGARRIA DA GURASO TALDE BATEK ANDOAINEN ERAKUTSI DUEN PRESTUTASUNA

Inauteriak amaitu eta gutxia, abiatu zen Andoaingo Eusfera batzordea eta, geroztik, antolaketan burubelarri murgldu dira.

Erroka horretan umeek garrantzi handia dute, haiek izaten baitira askotan gurasoak batzen dituztenak, euskaldunak ala erdaldunak izan. Euskararekiko sentsibilizazioa areagotzeko oinarriak jarri dira Andoainen, herritarren kezak eta Larramendi Bazkunaren ekiteko gogoia uztartuz.

Aiurri astekariak bat egin du ekimenarekin, komunikazio lanak bideratuz. Hain zuzen, Aiurri.eus gunean kanal berezia sortu zuen Eusferaren jarraipena eginez.

0-12 URTE BITARTEKO GURASOEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA IZAN DA HELBURUETAKOA



Gynkana mitologikoaren sari-banaketa ekitaldia. AIURRI



andoa**INDARRA**
euskaraz



XX URNIETA XX ERROMERIAN

maiatzak 23

11:00 Topagunea & Kalejira

12:30 Emanaldi nagusia

14:00 Bazkaria

17:00 Plaza-dantzak

Joseba Arretxe & Iruzta taldearekin

19:30 Dantzaldia, Itzal taldearekin





Izarne Moreno Manterola, Nekane Ubillos Zipitria, Leire Ros Juan eta Nagore Aroztegi Zubillaga. AIURRI

"Larunbatekoa erronka handia da baina oso gogotsu gaude"

LEIRE ROS, IZARNE MORENO, NEKANE UBILLOS, NAGORE AROZTEGI EDT

XX. Urnieta Erromerian jaialdia asteburuan izango da. Antolaketa-lanetan, belaunaldi berri bat hasi da ardurak hartzen

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Ibilbide oparoa egin du Egape Dantza Taldeak, urte hauetan guztietan. Gidari lanetan, hasiera-hasieratik, guraso taldea ari da eta, etorkizuna ardatz hartu-

ta, talde barruko dinamikan eraldaketa sustatzen ari dira. Belaunaldi berria antolaketa eta ardura lanetan murgiltzen ari da, pixkanaka. Konpromisoa eta erantzukizuna hartzearen beha-

rraz jabetzen dira Leire Ros Juan, Izarne Moreno Manterola, Nekane Ubillos Zipitria eta Nagore Aroztegi Zubillaga. Aiurrik laurak elkartu ditu asteburuko ospakizunen atarian.

Egape dantza taldean ardurak hartu dituzue guraso modura, zer moduzko esperientzia da?

Leire Ros Juan. Nire harremana Egape Dantza Taldearekin duela urte batzuk hasi zen, nire alabak 5 urte zituela. Egapen sartzea erabaki nuenetik, taldeko giroa eta egiten duten lana gertutik ezagutzeko aukera izan dut. Batzordean aspalditik dabilzanek lan handia egin dute, eta neurri handi batean haiei esker Egape Dantza taldea da gaur egun dena. Bestalde, elkarte kideek, lanak aurrera eramateko laguntza eskatu zuten, eta antolaketan laguntzera animatu nintzen. Azkenean, horrelako talde eta ekimenek aurrera egiteko jendearen inplikazioa behar dute, eta denon artean laguntzen ez badugu, egun, Egape ez litzateke berdina izango. Egape Dantza Taldeak badu izaera propioa; ez dira ohiko euskal dantzak bakarrik: abestiak, jantziak eta dantzak ere originalak eta bereziak dira. Nire ustez, horrek egiten du taldea hain erakargarri eta ezberdin.

Izarne Moreno Manterola. Denbora gutxi daramat, urtebete, hain

zuzen. Kulturalki beti lotuta egon naiz Egape Dantza Taldeari; dantzari ohia naiz eta seme-alabek ere dantzan jarraitzen dute. Hori kontuan hartuta, beharrezkotzat jo nuen batzordean parte hartzea, eta egiten diren gauza guztietan laguntza eskaintzea. Lan asko dago, eta denbora gutxi edukitzen dugu antolatzeke, baina, jende gehiagoren parte hartzearekin dena errazagoa da. Horri esker, emaitzak ateratzen dira.

Nekane Ubillos Zipitria. Nire alaba 4 urterekin hasi zen, eta orain, DBHko lehen mailan dago. Ikasurte honetara arte nire ekarpena nahiko txikia izan da; dantzari egunean hainbat taldetan arduradun gisa aritu naiz, alabarenean nahiz semearenean, eta laguntza eskatu dutenean nire alea jartzen saiatu naiz. Alabak dantzan jarraituko duela ikusita, taldeko batzordean sartzera animatu nintzen. Fun-tsean, esan duten bezala, lana gehiagoren artean banatzen denean errazagoa izaten delako, eta nik nire ekarpena egiteko gooa nuen.

Nagore Aroztegi Zubillaga. Nekarenen bide bera egin nuen. Alabak talde berean ditugu, eta dantzari txikien egunean beti parte hartu dut. Laguntza behar zela esan zuten, eta ni prest nengoen nire ekarpena egiteko. **Ikusten ez den lan asko dago ekimen hauen atzean. Zuen kasuan, nola banatu duzue lana?**

Izarne M.M. Bilera dezente egin ditugu. Bileretan erabaki dugu norberak zein ardura hartuko zuen, eta norberaren eskuragarritasunaren arabera banatu ditugu: bazkariaren antolaketa, musika taldea koordinatzea, rifak saltzea eta argazkilaria kontratatzea, besteak beste. Ez dago zehaztuta, bakoitzak zer egin behar duen, bakoitzaren denboraren arabera adosten dugu lan banaketa.

Nagore A.Z. Gure atzean lan talde handi bat dago, Egape Dantza Taldean hasiera hasieratik lanean ibili direnak, eta oraindik jarraitzen dutenak; Jaione, Leire, Arantxa, bi Anak, Axun... Izugarrizko lana egiten dute.

Leire R.J. Gu sartu berriak gara, eta oraindik ikasten ari gara. Ahal den neurrian laguntzen saiatu gara.

Egaperen gakoetako bat auzolana da. Zein iritzi duzue orain arte egindako ibilbideaz?

Nagore U.Z. Uste dut, kanpotik oso erraza ikusten dela dena; dantzari txikien eguna, rifak, bestelako ekitaldiak... Baina barruan sartzean jabetzen zara horren atzean dagoen lanaz, eta horrek eskatzen duen konpromisoaz. Uste dut, askotan, ez dela balioan jartzen atzetik dagoen lan hori guztia.

Izarne M.M. Asteburuan 20. urteurrena ospatuko dugu baina gure eginkizuna ez da horretara mugatzen. Ikasturte osoan emanaldi desberdinak daude, eta horien antolaketa osoa batzordeak kudeatzen du. Adibidez, duela hiru aste dantzari batzuk Hernanin egin zuten emanaldia, eta beste batzuk, berriz, Oiarzunen. Orain arte ez genuen Dantzari Txiki egunean arduradun gisa parte hartu eta egin da topatzen genuen. Orain, aldiz, barrutik ari gara dena antolatzen.

Batetik, beteranoak, bestetik, hasi berriak. Belaunaldi artekotasuna ondo uztartzen da?

Nekane U.Z. Ondo, baina azpimarratu nahi dut ez dela belaunaldi-erleborik egon. Oraindik, ikasten ari gara.

Izarne M.M. Hori da. Gure lehen urtea da, eta ikasten ari gara. Baina, uste dut, jendea konturatu behar dela, oso polita direla Urnieta Erromeria eta antzeko emanaldiak, baina hori aurrera ateratzeko, batzordean jendeak parte hartu behar duela. Jendeak informazioa ere eskatzen du, baina, beharrezkoa den guztiaz jakinarazten diegula esango nuke, informazio gehiago nahi baldin badute batzordean parte hartzeko esango nieke.

Nagore A.Z. Bai izugarritzko lana dago, eta eskulana behar da. Horregatik, oso positibotzat jotzen dugu aurreko belaunaldiek bidea ireki izana. Orain, egokitzea eta ikastea dagokigu guri.

Nekane U.Z. Esandako guztiari gehituko nioke ez dudala Egape Dantza Taldea eskola kanpoko dantza talde soil gisa ikusten. Maila oso altua dago, eta oso dantzari onak daude, DBH eta Batxilergoan, batez ere. Pena emango lidake gurasoak ez inplikatzeari.

"AURREKOEK BIDEA IREKI ZUTEN. JARRAIPENA EMATEA DAGOKIGU ORAIN"

NAGORE AROZTEGI ZUBILLAGA



XIX. Urnieta Erromerian, iazko udaberrian. AIURRI

gatik, gazteek horrelako esperientziarik ez bizitzea. Haien artean oso hunkigarria da; ez da besterik gabe dantza egitea. Gurasoen konpromisoa txikiagoa izango balitz, uste dut haien esperientzia ez litzateke berdina izango.

Nola gogoratzen dituzue euskal dantzak aspaldiko garaitan?

Izarne M.M. Lehen dantza oso desberdina zen. Dantza eskola kanpoko jarduera gisa ikusten genuen; entseguetara joan, ikasturte amaieran Saroben emanaldi egin, eta kito. Ez zegoen besterik.

Nagore A.Z. Nik oso oroitzapen polita dut. Kuadrillan animatu ginen, eta izugarria izan zen. Izan ere, ikusi genuen ez zutela betiko euskal dantza egiten, zerbait berezia zuen. Horren harira, kuadrillakoen izena ematea erabaki genuen, eta oso talde polita sortu genuen.

"TALDEAK AURRERA EGITEKO JENDEAREN INPLIKAZIOA BEHAR DA"

LEIRE ROS JUAN

Egaperen oinarria tradizioa eta berrikuntza nahastean datza. Hori izan da akaso arrakastaren gakoa?

Leire R.J. Bai, hain zuzen ere, hori da Egape erakargarria egiten duena.

Nekane U.Z. Bai, adibidez, lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek Hernanin dantzatzen dute, eta bertan, dantza eta musika tradizionalak indar handiagoa dute. Egape Dantza Taldean, aldiz, dantzek kutsu desberdin bat dute, eta jendeak hori nabarmentzen du.

Izarne M.M. Bai, adibidez, Korrikaren abestiarekin koreografia sortu dute. Niretzat hori oso hunkigarria da.

Nagore A.Z. Hain zuzen ere, horrek egiten du ezberdin Egape.

Nekane U.Z. Bai, dantzari gazteentzat ere askoz erakargarria da.

"BERRITASUN KUTSU HORI BADU EGAPEK, ETA HORI ERAKARGARRIA DA"

IZARNE MORENO MANTEROLA

Larunbat honetako ospakizunaren atarian gogotsu al zaudete?

Nagore A.Z. 20. urteurrena izanik, oso gogotsu gaude. Era berean, erronka handia da, lehen aldiz, festetatik atera baita, eta egun osoko egitaraua antolatu da, garrantzi berezia emateko. Oso egun polita izango da. Ea eguraldiak laguntzen duen.

Izarne M.M. Bai, gogotsu gabiltza antolaketa lanetan; alde batetik, gure alabek dantzatuko dutelako, eta bestetik, gu batzordean gaudelako. Azken hilabeteetan, ez gara horrenbeste bildu, baina egunerokoan lanean ari gara behar bezala ateratzeko eta egunaz disfrutatzeke.

Nekane U.Z. Lanari dagokionez, uste dut, denon artean nahiko ondo banatu dugula.

Izarne M.M. Bai. Antolaketa aurrera egin ahala, erabakiak hartzen joan gara, eta horren baitan, banatu dugu dena.

"AUKERA BAT DUGU EUSKAL KULTURARI BERE TOKIA EMATEKO"

NEKANE UBILLOS ZIPITRIA

Zer esango zeniekete haur eta guraso berriei taldera hurbildu daitezene?

Leire R.J. Herrian zorte handia dugula, Egape Dantza Taldea izateagatik. Geroz eta ume gehiagok ematen dute izena, eta pena litzateke gurasoek Egape aurrera ateratzeko bultzada ez ematea.

Izarne M.M. Zure alabek dantza egiten baldin badu, eta emanaldi bat baldin badauka, guraso gisa zergatik ez zenuke lagunduko hori antolatzen? Denon artean askoz errazagoa da. Aurreko belaunaldiak batzordea uzten joango dira, eta atzetik goazenak horri ekin behar diegu, batez ere, gure seme-alabek era berean disfrutatzen jarraitzea nahi badugu.

Nekane U.Z. Gainera, zorritzarekin, Urnietan euskararen egoera ez da oso ona, eta Egape parte hartzea aukera bat da euskal kulturari bere tokia emateko. Herrian; dantza, euskara eta euskal kultura kalean bistartzeko aukera bat da. Hori arrazoi on bat da guraso gehiago animatzeko.

Egun, aukera ugari daude aisialdiari dagokionez. Horrek zuzenean eragingo du Egape Dantza Taldearen etorkizunean?

Nekane U.Z. Uste dut, oso erraza dela dantza taldean sartzea, ikastolan antolatzen den eskolaz kanpoko jarduera bat denez, eta ikastolak bideratzen duenez, errazagoa ikusten dut ikasleak bertara hurbiltzea. Gainera, horrelako ekitaldi handiek ikusgarritasuna ematen diote taldeari.

Leire R.J. Gure alaben belaunaldia oso gogotsu datorrela esango nuke. Geroz eta nagusiagoak dira, eta ikusten dugu haiek direla dantzatzen jarraitu nahi dutenak. Txikitari adibidez, guk bultzatzen genituen, baina orain haiek dira jarraitzeko borondatea dutenak.

Izarne M.M. Bai. Lehen azaldu dugun bezala, Egapeko dantzak ez dira betiko dantza tradizionalak, berritasun kutsu hori dute, eta hori jendeari erakargarri egiten zaiola uste dut; gazteek, behintzat, ondo erantzuten dute. Egia da, hasieran euskal kultura gogoko dugun gurasoak garelako seme-alabak animatzen ditugunak, baina, ondoren, haiek dira jarraitu nahi dutenak, eta emaitzak hor daude.



Aurreko ostegunean egin zuten erakusketaren irekiera-ekitaldia. AIURRI

“Gure erronka eta ilusio nagusia transmisioa da”

Ekainaren 30era bitarte Bastero Kulturgunean ikusgai dago “Lebiton eta gure pertsonaiak” izeneko erakusketa. Konpartsaren izenean Rober Brosak hartu zuen hitza, zeinak transmisioaren alde egindako lana azpimarratu zuen

Xabier Lasa ANDOAIN

Jendetza elkartu zen erakusketagelan, irekiera-ekitaldian. Lebiton konpartsaren izenean, Rober Brosak hartu zuen hitza. Eskerroneko agertu zen Udaleko Kultura Sailarekin, eta bereziki, Itsaso Mendiluzerekin, “erakusketa gustuz eta goxotasunez antolatzeagatik; guretzat, gure pertsonaiak horrela ikustea, ohore handia da”. Erakusketari begira jarrita, hizketan jarraitu zuen Brosak: “Normalean, kalean ikusten gaituzue,

mugimenduan, musikaz lagunduta. Oraingoan, erraldoi eta buruhandiak geldirik daude. Guretzat panpin hauek ez dira soilik egurra eta oihala; Andoaingo herriko kulturaren parte dira, eta gure lana horiei bizia ematea da, belaunaldiz belaunaldi”. Ildo horri tiraka, transmisioa hizpide izan zuen Brosak: “gure erronka eta ilusio nagusia, hain zuzen ere, horixe da: transmisioa. Erreleboa hartu dugu lehengoengandik, eta gure asmoa bide horre-

tan jarraitzea da, tradizioak bizirik jarrai dezan, gure erraldoi eta buruhandiek dantzan jarrai dezaten eta herriko haurrek gurekin gozatzeko aukera izan dezaten”.

Andoaingo Udalaren izenean Marta Lasak hartu zuen hitza. 30 urte eta gero, zinegotziari pozgarri zaio egun bizirik mantentzea orduko proiektu haren ilusioa eta arima, eta taldekideak zoriondu zituen: “eskerrik beroenak eman behar dizkiegu konpartsako kide guztiei”.

Elementu ugari erakusketan



Cantinflas eta beste hainbat buruhandi, erakusketan. AIURRI

Iraganeko buruhandiak 80ko hamarkadan, herriko kaleetan, festa-giroa zabaldu zuten pertsonaiak ikusgai daude erakusketan. Hots, Aitona eta Amona erraldoiak eta Marinela, Cantinflas, Argala eta Lodia, Gizona, Groucho Marx eta Tximino Beltza buruhandiak.



Basajaun. AIURRI

Mari eta Basajaun 1986an Eduardo Arresygor artistak sortu zituen Mari eta Basajaun erraldoiak. Urte luzez udal biltegi batean izan ziren gordeta eta konpartsak biziberritu egin ditu. Santa Krutz jaietan, esaterako, kalera atera zituzten.



Lebiton konpartsatik harago doa erakusketa. AIURRI

Atzera begira Erakusketa ez da Lebiton konpartsaren hiru hamarkadako historia kontatzera mugatzen. 80ko hamarkadan eta aurrekoetan kaleak girotzen zituzten pertsonaiak eta horien eragileak hartu dituzte kontutan.

Rock Jaialdiko taldeak aurkeztu dituzte

Musika estilo eta talde berriak entzuteko aukera paregabea da Andoaingo Rock Jaialdia. Aurten ere, Euskal Herriko eta nazioarteko talde urratzaileak igoko dira oholtza gainera

Xabir Lasa ANDOAIN

Andoaingo Rock Jaialdiaren 18. edizioa ekainaren 13an izango da. Ohi bezala, oholtza nagusia Nafarroa plazan jarriko dute eta, aurretik, eguerdian hasita, udalerriko beste tokietan kontzertu txikiak izango dira. Nazioarteko hainbat talde ezagutzeko aukera izango da Nafarroa plazan: Erresuma Batuko Maruja, Frantziako Lézard eta estatu mailako nahiz Euskal Herriko Las Petunias, Pacto te quiero, Exnovios eta Silitia. Eguerdian hasita, Aperitif izeneko emanaldietan, Barrrk, Iiingles eta Katiuskak taldeak zuzenean ariko dira.



Plaza Morean egin zuten agerraldia. AIURRI

Aurkezpen ekitaldira bi musikari hurbildu ziren. Agerraldia taldeak hobeto ezagutzeko baliagarria izan zen.

Katiuskak

Maidar Beristain (bateria), Leire Kortaxaren (baxua eta ahotsa) eta Garazi Ziluaga (teklatura eta ahotsa) dira Katiuskak eta Plaza Morean joko dute. Aurkezpenean izan zen Maidar Beristain. Sortu berria da formazioa: “Zortzi abesti sortu ditugu orainoz, eta denboraz ez ditugu gehiegi luzatzen kontzertuak. Oso pozik gaude orain arte egindako ibilbidearekin; zuzenekoetan dena ematen dugu, eta publikoak, ordainean, berotasuna eta maitasuna transmititu digu. Ezin gara kexatu”.

Iiingles

Sei partaide dira: Pilar Blanco Alonso (gitarra eta ahotsa), Maidar Peluaga Lopetegui (gitarra), Martina Cabezón Virto (sintetizadorea eta hotsa), Itzi Bazterretxea Seijo (pandereta eta ahotsa), Ane Arbelaitz Sarasola (bateria), eta Oihane Bengoetxea Gartzia (baxua).

Feminismoaren ikuspegitik abiatuta, emakumeen presentzia nabarmen duten rock taldeak hartu dituzte jomugan: The Bangles izan daiteke erreferentzia-takoa. Basteroko aurkezpenean izan zen Oihane Bengoetxea: “Hasieran, emakume edota genero disidenteen presentzia duten taldeen bertsioak jotzen hasi ginen, bizi garen gizarte heteropatriarkal honetan isilarazi eta zapal dutako kolektibo eta ahotsei lekua eman eta oholtzan ikusgarri egiteko asmoz. Oholtzan zein oholtzatik kanpo, transfeminismoa ardatz, historikoki gizon cis-ek okupatutako espazioak bereganatzen jarraituko dugu!”.

Nazioarteko taldeei dagokionez, honako bi hauek deigarri dira:

Maruja

Erresuma Batuko taldea da. Jazz leherkorra, punka, noise-rocka eta spoken word-a uztartzen ditu.

Lézard

Post-punk musika Frantziatik. Talking Heads edo The B-52's kutsuko doinuak.



MLARRAMENDI

MANUEL LARRAMENDI
KULTUR BAZKUNA

URTEKO BILTZAR NAGUSIA

Maiatzak 23, larunbata
10:00 / 10:30 Urigain

Bertaratzea ezinbestekoa izango da,
datozen urteetako jardunak baldintzatuko dituzten
erabakiak hartu behar ditugulako.

Harremanetarako:
688 718 916 / harrera@larramendibazkuna.eus



Irudi ikusgarria sortu zen San Juan plazan, aurreko igandean. AIURRI

Erakustaldi aparta

Herri-kirolerako plaza ona da Urnietakoa, ikustea besterik ez zegoen hurbildu zen jende kopurua: lehiarako eremuaren buelta osoan dozenaka ikusle elkartu zen kirolarien jarduna bertatik bertara jarraitzeko asmoz

Xabier Lasa URNIETA

Rural Kutxa Binakako Aizkora Txapelketako finalerdi ikusgarriak jokatu ziren Urnietan, igande eguerdian, San Juan plazan. Hamalau aizkolari aritu ziren norgehiagoka, "Izar Berrien" (16-23 urte bitartekoak) eta emakumeen bikotekako txapelketa banatan. Hitzorduak, gainera, zaletuen interesa piztu zuen: lehiarako eremuaren buelta osoan dozenaka ikusle elkartu zen kirolarien jarduna bertatik bertara jarraitzeko asmoz. Zertzena Herri Kirol El-

karteak antolatu zuen txapelketa, Caja Rural eta Urnietako Udalaren laguntzarekin. Saioa osatzeko, Beñat Telleria eta Malen Morandeira harri-jasotzaile urnietarrek erakustaldi aparta egin zuten.

Finala, Astigarragan

Gizonezkoetan, Igoïn Pikabea-Mikel Santesteban eta Jon Zaldua-Joanes Izagirre "Ipiña" bikoteak sailkatu ziren maiatzaren 31n jokatu den finalerako. Emakumezkoetan, berriz, Malen Barrenetxea-Nerea Arruti eta

Uxue Ansorregi-Maika Ariztegi bikoteak.

Emakumezkoen mailan, finala eskuratzeko xedean, lau bikote plazaratu ziren San Juan plazan: Malen Barrenetxea-Nerea Arruti, Irati Astondoa-Ainize Perez, Oihana Fernandez de Barrena-Ekiñe Lopez, eta, Uxue Ansorregi-Maika Ariztegi. Finalaurrekoa Urnietan izan zen eta finala, berriz, Astigarragan izango da.

Argazki-bilduma eta bideo-sorta zabala ikusgai dago Aiurri.eus webgunean.



Finalen lehiatzeko sailkatu dira Nerea Arruti eta Malen Barrenetxea. AIURRI



Mikel Santesteban nafarra eta Igoïn Pikabea hernaniarra finalen ariko dira. AIURRI



Zertzena elkarteko kideak, taldeko argazkian. AIURRI



Beñat Telleria, 163 kg.ko harrizarrarekin lanean. AIURRI



Zaletuen, lagunen eta etxekoen begiradapean erakustaldia eman zuen Malen Morandeirak. AIURRI



Malen Morandeira. AIURRI

Itasa, enpresen lasterketan

Gipuzkoako hainbat enpresetako 1.125 taldek parte hartu zuten, igandean, Enpresen Lasterketaren 17. edizioan. Ohikoan bezala, lankidetzeta eta giro aparta izan ziren eguneko protagonista. Andoaingo ITASA enpresak ere parte hartu zuen, beste urte batez. Hiru talde irten ziren –horietako bat mistoa–, eta berriro ere argi geratu zen langileen inplikazioa halako ekimenekin. Bereziki nabarmendu ziren, andoaindarren artean, talde espiritua, elkarlana eta egun osoan nahiz aurreko egunetan bizi izan zuten giroa. Topaketa parte-hartzaile guztien arteko bazkari batekin amaitu zen, elkarbizitza eta ospakizun giroko eguna borobiltzeko.



ITASA



Estoucha Borroka Taldea sortu dute

Andoaingo gazte talde batek martxan jarri du boxeoa eta autodefentsa lantzeko eskola. Astelehen eta astearte arratsaldetan elkartuko dira Igara espazio sozialistan. Instagram kontua estouchabt da.

Kopako finala jokatuko dute

Ezusteko galanta eman zuen senior mailako Urnieta Artola Harategia eskubaloit taldeak, aurreko asteburuan, Egiako Kosko Taberna 25-28 irabaztean. Gorriek lehen zati bikaina egin zuten, eta lau goleko abantailarekin iritsi ziren atsedenaldira (13-17). Bigarren zatian, berriz, defentsan sendo aritu ziren, eta sufritzea tokatu zitzaizkien arren, finala jokatuko txartela eskuratu zuten. Garaipen horri esker, urnietarrek amaiera ezin hobea eman diezaizkete aurtengo denboraldi gorabeheratsuari. Partida bi aste barru jokatuko da, eta kantxa zehazteke dago.



AIURRI



AIURRI

Igotzeko aukeren bila

Bi edo hiru taldek lortuko dute Ohorezko mailara igoera eta Euskalduna hautagaietako da. Aurrekoan Antiguoko B taldeak jokatu zuten Ubitarten eta liderra zergatik den ondotxo erakutsi zuen. Aurkari zaila izan zen urdiñentzat: 0-3 amaitu zen partida. Pasaian jokatuko dute azkenaurrekoa eta, azkena, Ubitarten, Goierri Gorri Bren aurka.



Artxiboko irudia. AIURRI

Euskaldunak hil ala biziko partida du Orion

Erredakzioa ANDOAIN

Ohorezko Maila azken jardunaldira iritsi da eta xedea lau talde atzean uztea da. Larunbatean, beraz, finala jokatuko du Euskaldunak.

SAILKAPENA, 33. JARDUNALDIA

13	Amaikak Bat	37
14	Orioko	34
15	Euskalduna	31
16	Mutriku	30
17	Hernani	29
18	Deustu	24

34. JARDUNALDIA

Lar, 16:00 Orioko-Euskalduna

Txirrindularien hitzordua, Urnietan

Benjamin, alebin eta infantil mailako lasterketa antolatuta du

Andoaingo Txirrindulari Eskolak, larunbat honetan, Urnietako Udalarekin duen hitzarmenaren bidez. Idiazabal kalean izango da, 16:30ean hasita.



KLUBAREN EGUNA

2026-05-29



17:00 - 20:00

PARTIDUAK
ALLURALDE KIROLDEGIAN

Kategoria guztietako jokalariek, beterranoak, gurasoak, lagunak, etab. Izena eman dezakete

20:30

FESTA HASIERA
DJ NEMUX-EKIN
ZUMEAKO KARPAN

21:30

AFARIA, EUSKAL PARRILLAREN ESKUTIK

Afarian zehar, barrietan agertzen den zenbakiarekin zozketa egingo da.

22:30

FESTA JARRAITZEN DU
DJ NEMUX-EKIN

ZATOZ, GOZATU ETA IZAN ZAITEZ GURE FAMILIAREN PARTE!

#LEIZARANGARA



Urnietako
udala



Ostadar Inklusioa taldeko kide da Markel Uzquiano Lopez de Gereñu. AIURRI

Brontzeko domina eskuratu du Estatu mailako txapelketan

Markel Uzquiano Euskadiko txapeldun-orde eta estatu mailako hirugarrena izan da denboraldi honetan

Erredakzioa ANDOAIN

Ostadar Inklusioa taldeak balentria lortu du boccia kirol jardueran, denboraldi honetan. Dagoeneko EAEko eta estatu mailako erreferente dira. Kideetakoa Markel Uzquiano Lopez de Gereñu gazte andoainarra eta, oraingoan, balentria egin du: Estatu mailan, 15 urterekin domina lortzen duen lehen kirolaria da. Boccia kantxa estali batean jokatzen da eta larruzko bolak jaurtitzean datza, boccino izeneko pilota zuri batera ahalik eta gehien hurbiltzeko helburuarekin. Petankaren antzeko kirola da, aniztasun funtzionala duten pertsonen egokitua. Banaka, binaka edo taldeka jokatu daiteke.



Markel Uzquiano Lopez de Gereñu. AIURRI



Artxiboko irudia. AIURRI

Saskibaloian trebatzeko deialdia egin du Ganbarak

Erredakzioa ANDOAIN

Jokalariei deia luzatu die Ganbara saski taldeak: ostirero, 18:15 eta 19:15 artean, saskibaloia probatu nahi duten jokalariek prestaketa-saio irekietan parte hartzeko aukera izango dute Allurralde kiroldegian. Neska-mutilak, beraz, proba egitera deituta daude. Hona-ko egun hauek iragarri dituzte: maiatzak 22 eta 29, eta ekainak 5, 12 eta 19.

Txapeldun-ordeak

Junior mailako finala jokatu zen asteburuan, Easo Murumendi eta Representaciones Justino taldeen artean. Andoaindarrek ezin izan zuten aurkaria gainditu, Allurralden jokatu zen finalean. Eraitza argia da, Easokoen alde: 80-61. Galdu arren, Ganbarako junior mailako mutilek denboraldi bikaina egin dute, partida ugari irabaziz.



Iñaki Artola. DABID ARGINDAR

Nork irabaziko du? Artolak ala Dariok? Aiurrik porra antolatu du

Maiatzaren 31n finala jokatuko dute Artolak eta Dariok. Nork irabaziko du? Eta zein izango da emaitza?

Erredakzioa ANDOAIN

Iñaki Artola eta Dario Gomez izango dira aurrez aurre, datorren maiatzaren 31n, Buruz Buruko Txapelketaren finalean. Finalaren harira, porra antolatu du Aiurrik: Irabazlea eta emaitza zehatza asmatu beharra dago. Aiurri.eus gunean sartu, bete inprimakia eta parte hartu!

Lehiaketa irekia da; beraz, edonork parte har dezake. Maiatzaren 29ko eguerdiko 13:00etan itxiko da porra. Kontuan izan pertsona bakoitzeko erantzun bakarra hartuko dela kontuan. Porra asmatzen dutenen artean pertsona batek sari bikoitza lortuko du: Artolak sinatutako pilota eta Kuttun gozotegiko tarta.



Dario Gomez. DABID ARGINDAR

AZKEN GUDA KANTXA

ERREMONTARI

2026

MAIATZAK 25, ASTELEHENA

18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

LEHEN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA + 3. SETA, 8 TANTORA

SEGUROLA · LARRAÑAGA vs

EZKURRA II · AZPIROZ

BIGARREN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA + 3. SETA, 8 TANTORA

ANSA II · ZUBIRI vs

ALDABE · BARRENETXEA IV

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Lebiton

"Lebiton eta gure pertsonaiak" erakusketa.

Bastero. Ohiko ordutegia.
Azken eguna: ekainak 30.

MINTZODROMOA

URNIETA Mintzodromoa

Gonbida luzatu du AEKK: "Euskaraz praktikatu nahi baduzu... parte hartu!".

18:00, San Juan plaza.
Maiatzak 21, osteguna.

PARKETARRAK

ANDOAIN Aisialdia

Euskaraz aritzeko edizio berria martxan da. 3-5 urtekoentzat, lehen txandan. 7-9 urtekoentzat, bigarrena.

17:15 / 18:15, Goikoplaza.
Maiatzak 26, asteartea.
17:15 / 18:15, Zumea plaza.
Maiatzak 27, asteazkena.

BATZARRA

ANDOAIN Larramendi Bazkuna

Urteko biltzar nagusia.

10:00, lehen deialdia.
10:30, bigarren deialdia.
Maiatzak 22, ostirala. Urigain.

ANTZERKIA

ANDOAIN "Kolapsoa"

Kontsumoari buruzko hausnarketa.

19:30, Bastero Kulturunea.
Maiatzak 22, ostirala.

MUSIKA

URNIETA La Otra

Madrilen jaiotako abeslaria.

20:00, Sarobe.
Maiatzak 22, ostirala.

ANDOAIN Joana Ortega

Bastero Kafe zikloa: "Goizeko Izarrak" izeneko emanaldia.

19:30, Bastero.
Maiatzak 29, ostirala.



lazko emanaldia, Bastero Kulturunean. AIURRI

ANDOAIN Urki Dantza Taldearen emanaldia

Euskal Herriko dantzak ikusteko aukera izango da igandean.

12:00, Bastero Kulturunea.
Maiatzak 24, igandea.



Egun osoko ospakizuna antolatuta du Egape Dantza Taldeak. AIURRI

URNIETA XX. Urnieta Erromerian

11:00 Topagunea & Kalejira.

12:30 Emanaldi nagusia plazan.

14:00 Bazkaria.

Maiatzak 23, larunbata. Urnieta.

17:00 Plaza-dantzak: Joseba

Arretxe & Iruzta taldea.

19:30 Dantzaldia: Itzal taldea.

URNIETA Musika Eskola

Lourdes Iriondo Musika Eskolaren ikasturte amaierako Kontzertuak:

Maiatzak 25, astelehena:

17:15 Klarinete / tronpetak.

18:30 Kontzertu orokorra.

Maiatzak 26, asteartea:

17:15 Biolin emanaldia.

18:30 Piano emanaldia.

Maiatzak 27, asteazkena

18:30 Kontzertu orokorra.

Maiatzak 28, osteguna

17:30 Musika-tailerra eta

"Pentagrama Enea", aurkezpena.

19:00 Salsa Badago", plazan.

Ekainak 1, astelehena

17:30 Perkusio emanaldia.

Sarobe antzokia.

MERKATU TXIKIA

PISUKIDE BILA

IRUN

Iruneko pisu baterako neska euskaldun bila gabilta:
665 719 827.

IRAGARKIAK JARTZEKO BIDEAK

diseinua@aiurri.eus | 619 163 537 • 943 300 732
ARANTZIBIA 4-5, BEHEA. ANDOAIN

ZORION-AGURRAK

diseinua@aiurri.eus | 619 163 537 • 943 300 732
ARANTZIBIA 4-5, BEHEA. ANDOAIN

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Aia Korta Martinez
Zorionak Aia!
Maiatzaren 28an 5
urte beteko dituzu!
Jarraitu beti bezain
alai eta bihurri.
Muxuak Aratz eta
etxekoan partez.



ANDOAIN
Lourdes Ezkurra Mindegia
Maiatzaren 24an 68
urteko beteko
dituzu. Segi bizitza
ospatzen! Etxekoan
partetik besarkada
bat. Maite zaitugu :)

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

La isla de Amrum

Lar., 23. 19:30.

Igandea, 24. 19:30.

Astelehena, 25.

17:00, 19:30.

*2 euro, leihatilan.


Las ovejas detective

Lar., 30. 19:30.

Igandea, 31. 17:00,
19:30.

Astelehena, 1.

17:00, 19:30.



SINOPSIS

La isla de Amrum

Zuzendariak: Fatih Akin. **Aktoreak:** Diane Kruger, Laura Tonke, Detlev Buck.... **Hizkuntza:** Gaztelaniaz. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 93 m.

Bigarren Munduko Gerran oinarritutako filma

Amrum uhartea, 1945eko udaberria. Bigarren Mundu Gerrako azken egunetan, Nanning 12 urteko mutikoak, itsasari beldurrik gabe desafio egiten die fokak ehizatzeke, gauez arrantzara irteten da eta gertuko Bendixen baserriko zelaia zaintzen ditu. Aita kanpoan denez, Nanning Hermanekin duen adiskidetasun apurtezinaz fidatzen da. Hala, hainbeste itxarondako bakea iritsi ahala, ustekabeko erronkak sortuko zaizkio.

Hark Bohm zuzendari, gidoiari eta aktorearen haurtzaroan oinarritua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA